

# Javier Arzuaga

## «Jende askori lagundu nion hiltzen, baina hori ahaztua dago; orain bakean bizi naiz»

Beste batzuek harentzat aukeratutako bizia sufritzea egokitu zitzaion. Heriotza bera ere gertutik ezagutu zuen, gertuegitik. Azkenean, ordea, zulotik ateratzea lortu zuen, nahiz eta ekaitzak eragindako zauriak sendatzea kosta; bere ordez arraun egingo zuen norbait topatu zuen, hautsitako zatiak konponduko zituen.

**Arantxa Elizegi** Oñati

*A la medianoche* (Semillas en el Tiempo, 2012), halaxe du izena Javier Arzuagaren (Oñati, 1929) lanak. Iraultzako lehen urteetako gertakariak jasotzen dira bertan. Baina ez da historia liburu bat; ez, bederen, ohiko historia liburu bat. Barne borroka baten kontakizuna da, ikasitakoaren eta erre-alitatearen arteko talkak eragindako sufrimenduaren kontakizuna.

**G** Habanako urteak gogorrik izan ziren.

**E** Uneak eta tokiak bat egin zuten, Habanan nengoen iraultza piztear zegoela. Haren gertuko sentitzen nintzen, batez ere hitzematen zituen aldaketengatik. 1959an Habanako Casablanca auzoko apaiza nintzen, La Cabaña gazteluaren oinetan, badiaren beste aldean. Batistaren garaian kanpamentu militarra zen hura, eta hala izaten jarraitu zuen Che Guevara eta Fidel iritsi zirenean ere. Hain zuzen, Che Guevara bera izendatu zuten kanpamentu militarreko komandante, iraultzaren ostean. Iraultzatik egun gutxira hura ikustera joan nintzen, oinez. Ez nekien hartuko ninduen ere; baina hartu ninduen. «Baimena eskatzera nator hemen meza ematen jarraitzeko», esan nion; «Ez», erantzun zidan. «Espetxean daudenak bisitatzeko baimena eskatzera nator», esan nion segidan; «A, hori bai. Nahi duzun adina. Horiekin lan nahikoa izango duzu», erantzun zuen. Eta halaxe hasi nintzen presoel laguntzen; barruan sentitzen nuenaren aurka, ez bainintzen haien gertuko sentitzen. Baina halaxe gertatu zen.

**G** Eta exekuzioak hasi ziren.

**E** Iraultzaren epaitegiak lanean hasi ziren, eta baita jendea hiltzera zigortzen ere, eta ni han. Baziren sei, ia zazpi urte, apaiz izendatu nindutela, eta arazoak nituen fedeaekin, nahiz eta arazoa, agian, hori baino konplexuagoa zen. Horregatik, uste nuen ez nintzela gizon egokia inori heriotzara laguntzeko, are gutxiago pertsona hori exekutatu egin behar bazuten. Exekutatu aurretik, batek bi une bizi ditu: lehenengoan ulertezintasuna da nagusi, ez du ulertzen zergatik hil behar duten, zer egin duen berak era horretan amaitzeko; ondoren, datorkienari buruzko galderak sortzen dira, eta gero zer? Nora noa orain? Guztiak bataiatuak ziren, guztiak ziren erlijiosoak, baina oso zentzu lausoa. Eta niri zegokidan azaltzea zer etorriko zen hurrena, baina zer azalduko nien nire barnean arazo hori edukita?

**G** Zuk erabat sinesten ez zenuen zer baitetan sinetsarazi behar zenuen.

**E** Niretzat ez zuen zentzu handirik sinestarazteak, baina bai adorea emateak. Fusilatze pelotoiaren aurrera burua tente zutela joatea, horixe lor nezakeen. Eta horixe da liburuaren bihotza. Liburuaren helburua ez da iraultzako gertakizun batzuk kontatzea... Nik egoera horri aurre egin behar izan nion, eta ahal nuen moduan egin nuen, ahal nuen hobekien. Ez dakit asmatu ote nuen. Asko sufritu nuen, hori bai, halako egoera baten aurrean, aldatu egiten delako bat, ez haren ideiak, baina bai jarrerak. Zurea baino arazo larriagoak dituen gizon baten aurrean zaude. Haiekin bat egin nuen zentzu askotan, ez izan zirenaekin, zuten tragediarekin baizik. Ni haien tragediarekin bizi

nintzen, eta haiek nire hitzekin, baina ez zekiten nire ahotik horren argi ateratzen ziren hitzak ez zirela horren gardenak nire barruan.

Lagunekin biltzen nintzenez gertatutakoaz hitz egiten genuen. «Zer gertatu da gaur? Zenbat fusilatu dituzte?», galdetzen zuten. «Hau eta beste» erantzuten nien nik, «egunkarietan dator; horrela eta bestela egin dute». Aurrerago gertatutako hark guztiak burua nahastu zidanez, mediku batek esan zidan handik atera behar nuela, burua osasuntsu mantendu nahi banuen —bueno, gutxi gorabehera, inoiz ez baitut erabat osasuntsu eduki, kar-kar

**«Fusilatze pelotoiaren aurrera burua tente zutela joatea, horixe lor nezakeen»**

**«Haiekin bat egin nuen, ez izan zirenaekin, zuten tragediarekin baizik»**

Handik gutxira, Kubatik atera behar izan nuen, aita gaixotu zelako, eta Euskal Herrira etorri nintzen, eta ezin izan nintzen itzuli.

**G** Noiz hasi zinen gertatutakoaz idazten?

**E** Espainian, Madrilén bazen aldikari bat, *Vida nueva*, laika. Han idazten zuen Perez Lozano izeneko kazetari batek. Oso ondo idazten zuen. Hark eskatu zidan zer bait idazteko, eta testu pare

bat bidali nizkion. Berak jarri zituen tituluak. Irakurri nituenean, lehenak halaxe zioen: «Ni La Cabaña kapilaua izan nintzen». Erakustaldi txorora irudit zitzaidan. Bigarrenak: «Che Guevararekin hizketan». Ez dakit zer esan behar nuela zirudien. Egia da Che Guevararekin hitz egiten nuela, baina gu biok hitz egin genezakeen bezala. Gogoratzen naiz behin esan zidatela gaixo zegoela, eta hurrengo exekuziora joan aurretik hari bisita egitea erabaki nuen. Ohean zegoen. Iritsi nintzenez geratzeko, esertzeko esan zidan, eta hantxe egon ginen hizketan, lasaitasun osoz. Betikio moduan.

Batere funsgabea izan ez zen elkarrizketa azkena izan zen, ni Kubatik irten aurretik izan genuena. Orduan hauxe esan zidan: «Hurrengoan, jarrita dauzkagun mozorroak kenduta aurkitzen garenean aurrez aurre dauden etsaiak izango gara. Ez gara adiskideak izan. Zu zure espaloira eramaten saiatu zara, eta porrot egin duzu; eta ni nire espaloira erakartzen saiatu naiz, eta porrot egin dut». Hura izan zen harekin izan nuen elkarrizketa serioena. Gizonetik gizonera izandakoa.

**G** Gero etorri zen *A la medianoche*?

**E** Bi artikulu haiek irakurri nituenean, ez zitzaidan batere gustatu nola ikusi nuen neure burua. Haren ostean, intimitatean halakoez hitz egiten nuen noizean behin, baina gehienetan ez. Nahiago nuen hura atzean utzi, eta bizi. Denbora askoan ibili nintzen horrela, Latinoamerikan, herri herri, nire barruan karga hura nuela. Kubako lagun batzuek esaten zidaten barruan neraman hura uhartearen historiaren zati zela, ez zela nirea, kubatar guztie-



JUANAN RUIZ / ARGAZKI PRESS

na zela. Behin eta berriz esan zidaten, eta, azkenean, idaztea erabaki nuen. Zirriborro bat egin nuen, eta kazetari lagun bati eman nion. Ez dakit zer gertatu zen harekin. Esan zidaten 5.000 ale saldu zirela, baina niri asko iruditzen zait. Ahaztu egin nintzen hartaz guztiaz, Amaia azaldu zen arte. Deitu egin zidan: «Aizu, Amaia Apaolaza naiz, Donostiakoa»; «A, bai? Eta zer nahi duzu?», erantzun nion. «Zu ezagutzea». «Badira emakume eroak bizitzan», esan nion, kar-kar. Hala joan ziren egunak, eta proposatu zidan aurreko liburu haren edizio digitala ateratzea. «Eromen gehiago hasierako eromenaren gainean?», erantzun nion nik. Baina baietz esan nion, nahi zuena egiteko. [www.semillasentietempo.com-en dago eskuragai liburu].

**G** Iruditzen zait, hala ere, asko kosta zaizula liburu hau idaztea.

**E** Urteak behar izan ditut. Hiru alditan hasi nintzen idazten, eta hiruretan zakarretara bota nuen egindako lana. Kosta egiten zitzaidan hantukeria izugarria iruditzen zitzaidalako norberaren arazoak zabaltzen ibiltzea. Gauza bat da lorpenak kontatzea, baina porrotak?

Nik une batean izugarriko beharaldia izan nuen. Ez zen hil egin nahi nuela, neure burua hiltzeko prest nengoela baizik. Garaitsu



## Motzean

**1 Habana.** Nire etxea izandakoa. Bihotzean sartu zitzaidan, batez ere Casablancan. Ez ninduten asko maite. Ederra baino gehiago, oihularia deituko nuke nik. Habana nahasia; Habana eroa; Habana maitagarria; barruraino sartzen zaizuna; galtzen zaituena.

**2 Eliza.** Nora zoaz? Aurrekoan esaten zidan apaiz batek Eliza laster goitik behera aldatzen ez bada... [buruarekin ezetz egiten du].

**3 Iraultza.** Beharrezkoa da, baina gorrotorik gabe. Iraultza indarkeriarekin lotutako aldaketa da. Baina agian Kuba zen Latinoamerikako herrialdeetatik iraultza gutxi behar zuena. Ni indarkeriaren beldur naiz. Indarkeria bidezkoa izan daiteke, baina bidegabea izateko joera du. Beharrezkoa da hiltzea? Beharrezkoa da inor negarrez uztea? Nahiago nuke neure burua aldatzeko iraultza egin.

**4 La Cabaña.** Harria. Gutxi-gatik ez ninduten harri bilakatu. Gerora erakutsi didate Cabaña polit bat, izen horrekin aurkeztuko dute... baina niri La Cabaña esaten didatenean harria bakarrik dator kit gogora. Kolpatu egin ninduen, eta gutxi-gatik erabat lehortu.

**5 Estela.** «Berak arraun egin zuen, berak ura xukatu zuen, berak lema gobernatu zuen», diot liburuan, eta egia da. Estela ondo tolestutako zapi bat bezalako da. Ez dauka alderdi ezkuturik. Hondoratze batetik ateratako hondakinak ziren nireak Estela agertu zenean. Zauriak sendatuko zizkidan esku baten beharra nuen. Eta maitatuko ninduen eta maitatuko nuen norbaiten beharra. Horregatik askotan esaten diot: «Estela, eskerrik asko».

**6 Puerto Rico.** Berrogei urtean bizi izan naiz han, baina ez dut ezer utzi bertan. Estelak askotan esaten dit: «Gehiago bizi zara han, hemen baino. Oraindik ez dituzte gainetik kendu apaiz izan zinen urteak». Baina hori da erabat hondatuta heldu nintzelako bertara.

**E** Bakea. Bakea posible da, posible da itzaropenez bizitzea. Liburuan halaxe diot: «Ez ditut nire fede arazoak konpondu. Edo konpondu ditut, baina atzera begiratu gabe. Ez ditut jendarteratzen eta ez dut egiteko beharririk ikusten, baina uko egin diet teologoen tailerretan eginak direla uste dudana dogma guztiei. Sinesten dut Jainkoan bizia ematen duen bizitza den heinean, sorkuntzaren jatorri, maitasunarena, energia eta argiarena, denean ageri dena, dagoen guztiaren funtsa, non guztiak anaiaik garen». Nik jende askori lagundu nion hiltzen, eta usate dut bakean hil zirela. Gorrotatuak izatearen tragediari aurre eginez hil ziren. Hori guztia ahaztuta dago, eta orain bakean bizi naiz nire buruarekin.

**G Zer pentsatzen du hamar urterekin Arantzazura bidean doan haur batek?**

**E** Ez du hiltzen dutela sentitzen. Eta agian Arantzazun ikasi ostean, Eliza uztea erabaki duten beste askok ere ez zuten sentituko hil egin dituztela. Agian bai pentsatuko zuten denbora galtzeko modua zela hura, baina besterik ez. Hori erotuta dagoen buru batek bakarrik pentsa lezake. Baina orduan nire burutik ez zen halakorik pasatzen, ziurrenik ni pentsatzen hasi baino lehenago erabakita zegoelako apaiz joango nintzela. Nire aita umezurtz geratu zen bi urte zituela. Amona, berriz, apaizaren etxean aritzen zen lanean, eta aita bere kargu hartu zuen, bere amak — nire amonak — beste etxe batean zerbitzatzen zuen bitartean. Hala, herriko apaiza haren bigarren aita izan zen. Nire amaren heziketa, berriz, harena baino elizkoia goa eta estuagoa izan zen; arrosarioz eta otoiitez inguratua hazi zen. Pentsatzen dut asko eta ondo maiteko zutela elkar, baina nire amak moja izan behar zuen. Horregatik nik hamar urterekin esan nuen Arantzazura joan nahi nuela han kamioi bat gidatzen ikasiko nuelako —berdin zitzaidan aurretik latina ikasi behar izatea—, etxean izugarri poztu ziren. Zer sentitzen nuen? Ez dakit. Bati esaten diote hori ikasi behar duela, eta ez daki zer-gatik baina ikasi egiten du.

Niri bizitza ikusteko modu bat sartu zidaten indarrez. Ebanjelioa bizi duen norbaitetik —eta ez dut horrekin esan nahi nik bizi izan dudantik: nik asko zapaldu dit ebanjelioa—, baina bizi duen norbaitetik maitasuna eta tristura sentitzen ditu, lagundu egin nahi du, gizakia zerbitzatu nahi du...eta agian hori da gelditzen zaidana. Baina bizitza ikusteko nire modua, 40 urte apaiz izan ostean, irakatsi zidaten hura da. Baditut lagunak irten zirenean gorrotoa sentitzen zutenak, baina nik ezin dut halakorik esan.

hartan atera genuen liburua, eta hura eskuetan hartuta hutsik sentitzen nintzen. Medikuek esaten zidaten horregatik zela, baina nik ez nuen ulertzen, ez nuen lotura hura egiten.

**G Kuban pasatu behar izan zenuek muturrera eramane zintuen.**

**E** Bai, liburuan bertan aitortzen dut hori. Batzuetan era arriskuetsuan gidatzen nuen, eta alkoholarekin laguntza ere bilatzen nuen. Niri hasieran ez zitzaidan whiskia gustatzen. Lehen aldiz Habanan probatu zuen, euskal-kubatar jai batean, non nik ezpata dantza irakatsi behar nuen Alicia Alonsoren anaiaren dantza eskolan. Whiskia botika bilakatu zen. Lotarako erabiltzen nuen, eta, azkenean, gustatu egin zitzaidan. Gerora, eskura nuenen edaten nuen, eta ez nuenen beste zerbaite hiltzen nion. Baina beste gauza batzuk ere gertatu ziren, eta burua nahastu egin zitzaidan; hemendik kanporatu nindutenean asko sufritu nuen. Nire ezkontza harremanak ere asko sufritu du horren guztiaren ondorioz.

**G Liburuan, Perun emandako sermoi bat aipatzen duzu halako batean; orduan esan omen zenuen: «Ni hamar urterekin hil zuten, edo hil nuen, haur baten gorpua naiz».**

**E** Liburuaren lehen bertsioan ez da esaldi hori agertzen. Gerora sartu nuen, nolabait ere nire ara-

zoaren oinarrian zegoelakoan. Hain zuzen hamar urte nituela, plaza honetatik bertatik, irailaren 30 batean atera nintzen kamioi batean Arantzazu aldera. Handik urte askora, Perun, misio batean, barrua erabat hondatuta nuela bota nuen hori. Esaldia an-

*«Ni pentsatzen hasi baino lehen erabakita zegoen apaiz joango nintzela»*

*«Bizitza ikusteko modu bat sartu zidaten indarrez; eta, 40 urte geroago, horri eusten diot»*

kerra da. Pentsatu gabe esan nuen, oso haserre nengoen une batean. Bezperan, misioa irekitzeko unean —ekonomikoki ondo egokitutako jendea bizi zen inguru hartan, baina baita baztertuak ere— aurrean nituen herriko aberatsak eta gogoan ezkutuan zeudenak, pobreak, baztertuak, eta hasi nintzen hitz egiten misioaren helburuez, eta esan nien: «Misio honen helburua jarrekerak alda-

tzea behar du izan, Kristoren hitza eta ebanjelioa oinarri hartuta, besteak zerbitzatu behar ditugu —eta orduan burua joan zitzaidan, eta esan nuen— egin dezagun Elizak egiten ez duena, goztainek egiten ez dutena». Agian ez nuen horrela esan, baina ideia hori zen. Han, bazter batean, aita santuaren nuntzioa zegoen, eta hura entzun zuenean berehala deitu zion Limako kardinalari. Oihuka esan zion «Hau predikatu duen kaputxino hori —ni ez nintzen kaputxinoa, baina...— atera ezazue hemendik berehala!». Kardinalak ordurako ezagutzen ninduen, eta debekatua zidan sermoiak egitea misioan, ez nuelako bere ikuspegiarekin bat egiten, baina niri eskatu egin zidaten, besteren baten hutsunea betetzeko. Hurrengo arratsaldean kardinala etorri zen kontuak eskatzera, eta horixe esan nion nik, eskatuta egin nuela sermoia. Atsekabeta nengoen, eta haserre. Hurrengo sermoia egitea egokitu zitzaidanean, isilik geratu nintzen, eta bat-batean, askorik pentsatu gabe, horixe bota nuen: «Hamar urte zituela hil zuten, edo hil nuen, haur baten gorpua naiz».

Dena den, nik ez nuke esaldi horrekin laburtuko liburua, nahia-go ditut beste hitz batzuk.

**G Zeintzuk? Zein hitzekin laburtuko zenuke?**